BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

3762

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 16koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, euskararen eremu geografikotik kanpo euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko xedea duten kultura-programa edo -jarduera bereziak 2012. urtean garatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2012ko martxoaren 20ko Ebazpenaren babesean egindako laguntza-eskabideak ebazteko dena.

AURREKARIAK

1.– 2012ko apirilaren 16an, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2012ko martxoaren 20ko Ebazpena argitaratu zen, EHAAn.

2.– Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2012ko martxoaren 20ko Ebazpenaren 13.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Balorazio batzordeak 2012ko uztailaren 12an ebazpen-proposamen bat egin zuen, aurkeztutako laguntza-eskabideen gainean, eta baita Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari jakinarazi ere, horrek, hura ikusita, erabakia har zezan aurkeztutako laguntza-eskabideen gainean.

Horiek horrela, eta Balorazio batzordeak prestatutako ebazpen-proposamena ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entitate onuradunak.

I. eranskinean jakinarazten diren entitateei diru-laguntzak esleitzea, bertan agertzen diren kopuruengatik eta kasuan kasu aipatutako programa(k) edo jarduera(k) garatzeko.

Bigarrena.– Ezetsitako eskabideak.

II. eranskinean jakinarazten diren laguntza-eskabideak ezestea, bertan aditzera ematen diren arrazoietan oinarrituz.

Hirugarrena.– Entitate onuradunek kontuan hartu beharreko aspektuak.

Entitate onuradunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2012ko martxoaren 20ko Ebazpenean ezarritako guztia bete beharko dute (2012ko apirilaren 16ko EHAA, 74. zk.).

Laugarrena.– Jakinarazpena.

Ebazpen hau entitate interesdun orori jakinaraztea.

Bosgarrena.– Publizitatea.

Kasuan kasuko programengatik edo jarduerengatik jasotako diru-laguntzen kopuruak eta beren entitate onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke etxepare euskal institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik hasita, hala xedatuta baitago azaroaren 26ko 30/1992 legearen 114. artikuluan.

Donostia-San Sebastián, 2012ko uztailaren 16a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.

I. ERANSKINA
Diru-laguntza jasoko duten eskabideak

Esp. zk.	Eskatzailea	Proiektua	Diru-kopurua
EO-2012-0001	Cit Tolosako Ekinbide Etxea	2016. urtean UNIMAko Nazioarteko kongresu eta jaialdia Donostia-Tolosan izateko hautagaitzaren aurkezpena	10.420, 00
EO-2012-0002	Oga afizionatuen Elkarte Musikal Kulturala	Euskal Musika Sakroa Valentzian	612, 00
EO-2012-0003	Entrecuerpos-mugatxoan	Estanbul eta Belgradeko mintegiak	3.815, 00
EO-2012-0004	Galtzagorri Elkartea	Paperean Hegan: ikuskizun bat euskal haur literaturaz Ibby-ren 33. biltzarrean	8.482,00
EO-2012-0005	Galtzagorri Elkartea	Mollerussako XXVIII. saloian euskal haur eta gazte literatura aurkeztea	733,00
EO-2012-0008	«Cum jubilo» Abesbatza (easo)	Tesalonicako ISMEren biltzarrean hitzaldia eta kontzertuak	1.531,00
EO-2012-0009	Euskal Kantuzaleen Elkartea	Liet International festibalean parte hartzea eta «Hiahoka» aurkeztea	1.051,00
EO-2012-0010	Atari: Asociación Cultural Arquitectónica de Euskadi	Euskal arkitekto gazteen hitzaldiak euren lana ezagutarazteko (Pau, Bordele, Paris, Madril eta Bartzelona)	2.525,00
EO-2012-0011	«Gero axular» Dantza Taldea	Ume-gaztetxoen dantza emanaldiak hiru jaialditan: Festival des enfants du Monde de Saint Maixen l´Ecole, Festival Internacional de música de Cantonigros eta Gucha Trumpet Music Festival	1.307,00
EO-2012-0012	Global Net Society Institute	«Sociedad global en red» nazioarteko biltzarra Madrilen eta Bruselan	2.193,00
EO-2012-0013	Bartzelonako Euskal Etxea	EH Sona! 2012. Euskal musika taldeak sustatu eta ezagutzera emateko plataforma	11.201,00
EO-2012-0014	Itxartu Dantza Taldea	Dantza bira Rosarioko (Argentina) eta Montevideoko Euskal Etxeetan	1.180,00
EO-2012-0015	Arkeolan Fundazioa	Euskal arkeologia erromatarraren berri ematea Erroman hizkuntza zientifikoa eta poetikoa uztartuta	1.347,00
EO-2012-0020	Lan eta jolas	«Urkabustaizko Dantzariak» taldea 2012ko International County-Wandering jaialdian (Hungaria)	1.156,00
EO-2012-0021	Zahamiola Elkartea: Ehu-ko Abesbatza	Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatzak Sardiniako «Concordia Vocis» nazioarteko jaialdian parte hartzea	1.156, 00
EO-2012-0022	Agrupación Coral Ondarreta	Kontzertuak *El Paular* (Rascafría) monastegian, Segoviako katedralean, Anguleman eta Saint Seurin (Bordele) basilikan	1.291, 00
GUZTIRA			**50.000,00**

II. ERANSKINA
Diruz lagundu ez diren eskabideak

Atzera egiteagatik artxibatutako eskabideak

Esp. zk.	Eskatzailea	Proiektua
EO-2012-0006	Kantaka Abesbatza	Madrileko San Ignacio elizan kontzertua

Ezetsitako eskabideak, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2012ko martxoaren 20ko Ebazpenaren 1. eta 6. artikuluetan xedatutakoa betez

Esp. Zk.	Eskatzailea	Proiektua
EO-2012-0007	Adarmendi Euskal Kultur Elkartea	«Mitología del Pueblo Vasco. Tras las huellas de los gentiles» osatzen duten liburua eta DVD-Rom-a itzultzea eta zabaltzea
EO-2012-0016	Editorial Nerea	Merkatu azterketa Chillidari eta Balenciagari buruzko liburuak itzultzeko
EO-2012-0017	Fundación de casas históricas y singulares	Euskal Herriko hainbat erakini buruzko hiru jolas didaktiko ekoiztea eta banatzea
EO-2012-0018	Tolosako Orfeoia	Kontzertua Tuteran
EO-2012-0019	Asociación Cultural Espacio Abisal	Espacio Abisal (Bilbao) eta D21 (Leipzig) elkarteen arteko artista trukea